



Izenburua	Oinarrizko taldeak eta Euskara: bihotzaren arrazoiak
Egilea	Pello Jauregi Etxaniz
Data	2009/03/13

aurkibidea

aurkibidea.....	2
1. Hizkuntza fenomenoan kokatzen.....	3
2. Oinarrizko taldeak.....	3
3. Familia eta hizkuntza harremana.....	5
4. Bikotetik familira: aldaketa garaia.....	6
5. Esanak esan, eginean egin.....	8
6. Eskuhartzeko ildo nagusiak.....	9
Hitza.....	9
Ekintza.....	10
Laguntza.....	12
7. Aitaren eta amaren arteko hizkuntza harremana.....	13
8. Amaren eta umearen arteko hizkuntza harremana, aitaren eta umearen arteko hizkuntza harremana.....	14
9. Gurasoen arteko hizkuntza harremana: guraso sareak.....	16
10. Aiton-amonaren eta umearen arteko hizkuntza harremana.....	16
11. Irakaslearen eta gurasoen arteko hizkuntza harremana.....	17

1. Hizkuntza fenomenoan kokatzen

Airean balego bezala hitz egin dezakegu hizkuntzaz, eta esan, kasurako, “euskararen erabilera ez da asko zabaldu azken urteotan” eta haren modukoak. Ohiko hizkera dugu hori soziolinguistika lanetan. Ematen du hizkuntza berez badela.

Baina, izaki bizidunik gabe bizitzarik ez dagoen bezala, hiztunik gabe ere ez dago hizkuntzarik. Hizkuntza biologiari lotuta dago halaberrez. Organismo baten hizkuntzazko jokaerarik gabe ez dago hizkuntzarik. Organismo baten jokaera bizia da hizkuntza. Hortik aurrerakoa abstrakzioa hutsa baino ez da.

Hala ere, erne gero, hizkuntzazko jokaera ezin baita ulertu gizabanako autonomoen jarduera gisa. Geure ustez, harremanaren eremuan sortu zen hizkuntza, gizabanako batzuen eta besteen jokaerak eta ekintzak bateratzen zituela. Hizkuntza ez da norberaren genetikan edo burmuinean kokatzen den zerbait, -honek ahalbidetzen duen arren-, baizik eta talde-harremanetan sortzen eta bertan irauten duen gizarte gertaera zabala. Batzuen eta besteen ekintzen erregulatzailerik gisa jokatzeko du hizkuntzak.

Hizkuntzak, erregulatzailerik gisa, ez zukeen gizaki-espezietan garapen handirik ezagutu, baldin eta gizakiok harreman-eremu iraunkorretan bizitzeko joerarik izan ez bagenu. Esaterako, kumeak urte luzeetan zaintzeko beharra izan ez bagenu, elkarri babesteko talde iraunkorrik sortu ez bagenu, elkarrekin luzaz egoteko irrikarik izan ez bagenu, orduan nekez izan genezakeen gure arteko harremanak erregulatzeko tresna landu eta korapilatsu bat sortzeko beharra. Hori ezean, hizkuntzak ez zukeen eremu egokirik izan garatzeko. Gizakiok harremanetan atxikimendu emozional berezia erabili izan dugu beti, gure sorreratik bertatik, elkarren ondoan, harreman gozo atseginetan, luzaz egoteko. Zirrara horri maitasuna esan genezake, Humberto Maturana biologariari jarraiki (1990: Emociones y lenguaje en educación y política. Txileko Santiago. Dolmen). Maitasunak, adiera biologikoan, zera adierazten du: besteekin egoteko dugun joera, beharra eta hortik ateratzen dugun atsegina.

Zirrara berezi batek, maitasunak, harreman-eremu berezi bat, iraunkor eta ongi egituratua, abiatu zuen gure giza-espezietaren lehen urratsetan. Hari eskerrak, ugaritu, eta baita korapilatu ere, egin ziren kide-harremanak. Harreman gero eta korapilatsuago horiek erregulatzeko beharrak, izan ere, abiatu zuen hizkuntza sinbolikoaren garapena. Kideen arteko harreman gozoen eremuan sortu zen hizkuntza, eta horri atxikirik darraigu egun, miloika urte geroxeago ere.

2. Oinarrizko taldeak

Egun ere maitasunean oinarritutako taldeak dira gizartearen oinarria. Hots, atseginean, sinpatian, aldekatasunean, maitasunean edo adiskidetasunean oinarritzen direnak. Bertan sortzen diren harremanak esan genezake jariotsu, bizi, berezko eta informalak direla. Talde hauek iraunkorrak izateko joera izaten dute, bizitza osoa irauteraino batzuetan. Hona hemen funtsezkoenak:


1. Lagun-taldeak: bereziki haurtzaroan eta gaztaroan osatutako lagunarteak
2. Bikoteak: heltzaroan intimitate harremanak iraunkortzeko sortzen diren guneak
3. Babes-taldeak: bereziki seme-alaben hazkunderako eta zainketarako sortutako senitarte-inguruneak

Babes-talde batean, eta erabateko menpekotasunean, abiatzen dituzte haurrek lehen urratsak. Gerora, jolasaren eremuak aurrera eramanez, kide-harremanetan trebatuko dira gero eta garrantzia gehiago hartzen duten lagun-taldeetan.

Gaspeak ongi kokatuak daude lagun-taldeetan. Bertan dute abiapuntua. Baina gerora, bikoteak osatzeko garaia nagusituko da faktore ugari uztartzearen ondorioz: heldutasuna, zirrarak eta sexua besteak beste. Bikote finkoak sortzen hasiko dira lagun-taldeen amarauek abiatuta. Norbere lagun-taldeetan bertan sortuko dira bikote haiek batak. Baina, gehienetan, inguruko lagun-taldeetako kideak nahastuz osatuko dira.

Gizarte askotan bizi-burujabetasunarekin lotzen da heldutasuna. Eta hala, bikoteak osatzea eta, batez ere, nola edo hala instituzionalizatzea izaten da heldu bizitzaren abiapuntu nagusietako bat. Beranduego etorriko dira seme-alabak eta haiek babesteko-hezitzeko eremu bat eraiki beharra. Heldu baten urte asko hartuko ditu zeregin honek.

Hauxe duzue bizitzaren oinarriko zikloa eta gizarte-antolamenduaren muinarik sakonena. Ondorengo irudiak laburbildu egiten du hau guztia.




Gurea baino errazagoak diren gizarteetan, non ez dagoen ez eskolarik, ez lantegirik, oinarriko taldeek beraiek beren egiten dituzte egiteko horiek. Eskolaren ordez, senitateak berak hartuko du bere gain haurren zainketa eta heziketa. Gertuko senitateak bezala senitate zabalak ere esku hartuko du zeregin horretan, bai eta behar denean auzokideek ere. Horiek guztiak "maitasunean" oinarritutako harremanak izaten dira, alegia elkar ezagutzan eta estimuan oin hartzen duten kideen arteko harreman gertukoak. Lantegiaren ordez, senitateka antolatuko dira lanok, eta askotan, lanaren tamainak hala eskatzean, auzolanean jardungo dute.

Hortaz, kide-harremanak dira nagusi halako oinarriko gizarte txiki batean. Auzo-harremanak ere oso kontuan hartzekoak dira. Ordea, oso arraroak dira arrotz-harremanak.

Gizarte-antolamendua, ordea, dezente korapilatu zaigu azken mendeotan. Eremu industrializatuetan bereziki. Lehen oinarriko taldeetan ematen ziren egiteko ugari, handik atera eta eremu formalak pasa dira. Besteak beste, eskola, lana edo komunitatearen kudeaketa. Eremu formal horiek jada ez

dira antolatzen maitasunean oinarrিতuta, baizik eta arategietan, eraginkortasunean, arrazionalitatean eta lehiakortasunean. Bestelako giroa nagusitzen da bertan. Urrutiko harreman hotz eta aratuak nabarmentzen dira. Arrotz-harremanak izugarri ugaltzen dira. Auzo-harremanak eta kide-harremanak nabarmen ahultzen dira, bereziki azkenak, kide-harremanak. Bihotza diren oinarrizko taldeen inguruan erakunde formalak sortu dira goiko geruza bat bailitzan.



Egia da haurrek eta gazteek denbora asko ematen dutela eskolan. Egia da, era berean, gazteek eta helduek denbora asko ematen dutela lanean. Baina funtsean oinarrizko taldeetan ematen diren maitasunezko harremanetan finkatzen da hizkuntza-jokaera nagusia, zeren hizkuntza eta maitasunezko harremanak eskutik lotuak baitatoz gure linajearen sorkuntzatik bertatik.

3. Familia eta hizkuntza harremana

2003. urtean egin genuen ikerketan (Jauregi, P. (2003): Euskara eta gazteak Lasarte-Orian-II. Lasarte-Oriako Udala) hainbat datu esanguratsu eskuratu genuen. Oinarrizko taldeen inguruan hainbat hipotesia egiteko balio izan ziguten.

Hala, esaterako, garbi ikusi genuen etxearen eragina eskolarena baino askoz ere nabarmenagoa zela gazteen euskararen kale-erabilera finkatzeko garaian. Etxean euskara jaso zuten gazte gehienek (10etik 8k) lagunekin ere euskaraz egiteko joera izaten zuten. Ordea, euskara etxean ez baina eskolan soilik ikasi zuten gazte artean oso gutxi erabiltzen zuten euskara (10etik 2k) lagun euskaldunekin hitz egiterakoan.

Etxea eskola baino garrantzitsuagoa dela esan genezake gazteen hizkuntzazko jokaera finkatzeko garaian. Sinestezina dirudien arren, familia den oinarrizko talde afektibo txikia gailendu egiten zaio eskola den erakunde formal handiari.

Etxe barrukoa ere aztertu genuen eta ikusi ezen amaren hizkuntza-jokaerak aitarenak baino arrasto handiagoa uzten zuela seme-alaben geroko hizkuntza-jokaeran. Honek indartu egin zuen harreman afektiboen garrantziaz eraikitzen ari ginen ustea. Izan ere, begi bistakoa iruditzen baitzaigu baieztatzea ezen haurrek amarekin duten harremana normalean aitarekin dutena baino gertuagoko eta afektiboagoa dela.

Ikusi genuen, ondorioz, etxeko euskararen erabilerearen indizea oso prediktore ona izan zitekeela ezagutzeko gazteek kalean zenbatetan erabiliko zuten euskara. Alderantzikoa ere egia izan liteke

bezala, alegia gazteek kalean lagunartean euskaraz zenbatetan egiten duten ezagaturik jakin genezake etxeetan zenbat erabiltzen den euskara. Bi eremu horien arteko parekotasuna erakusteko taula bat erabili genuen, honako hau:

	1992. urtean	2002. urtean
Etxean euskaraz mintzatzen diren amak	26,6	26,4
Euskaraz oso ongi mintzatzen diren gazteak	29,7	32,9
Lagunekin euskaraz egin ohi duten gazteak	23,5	30,0

Gurasoak eta haurrak biltzen dituen eremuan (familian) gauzatzen da belaunaldien arteko zubia. Gure ustez, gurasoen hizkuntzazko jokaerak sakoneko ildo afektiboa ezartzen du seme-alaben hizkuntzazko jokaeran. Horregatik uste dugu euskaraz diharduten gurasoen kopurua ugalduta ezean ez dela handituko belaunaldi berrien euskararen erabilera ere, ez esanguratsuki bederen. Belaunaldi berrien hizkuntz-jokaera ebaluatzean ez dugu haurren jokaera aintzat hartzen, gazte garaikoa baizik. Uste dugu haurtzaroan uztartu egiten direla eskolaren eta familiaren eragina, baina gaztaroan eskolaren eragina "erori" eta familiatik datorren sakoneko arrasto afektiboa eusten diola gehienbat gazteen hizkuntzazko jokaerari.

Kale-neurketek diotenez, hurrek gehiago darabilte euskara gazteek eta helduek baino. Eskolaren eragina zuzen ikus daiteke horretan. Haurrak oso sentiberak dira testuingurura. Erraz samar egokitzen dira hartara. Horregatik, zailtasunak zailtasun, erraz moldatzen dira hizkuntza arrotzeko testuinguruetara. Hala ere, haurrak ez dira testuinguru bakarrean gizarteratzen. Eskolako eta etxeko hizkuntza gizarteratzeak ez datoz bat kasurik gehienetan. Zein izango da bestelako gizarteratzeek gerora haur horiengan utziko duten arrastoa? Berdin iraungo al dute? Hizkuntzari dagokionez eskolaren eragina aparraren modukoa dela pentsa liteke, alegia oso nabarmena da haurrak bertan direnean, baina "erori" egiten da handik kanpo edo haren eraginatik landa direnean. Etxearen eragina, berriz, oso bestelakoa da, eta putzu sakon batekin aldera liteke: putzua lur azpian egonik ez da ikusten, baina norbere iturriaren etengabeko sorburua da. Ahalegin ugari egin dira haurren euskalduntzean, eskolaren eta aisialdiaren bidez bereziki. Hala ere, gaude bide horrek ezin duela jada askoz ere gehiago eman. Helduen belaunaldian dago, gure ustez, benetako gakoa, haiek seme-alabekiko harremanetan maitasuna eta hizkuntza estuki lotzen baitituzte, seme-alabengan oso-oso sakoneko arrastoa utziz.

Eman aurretik jaso egin behar da. Eta jaso, etxean jasotzen dute hurrek hizkuntza-maitasuna gurasoek emanda. Gerora beraiek ere emango dute gazte eta heldu direnengan barruan daramaten iturri oparo hori.

4. Bikotetik familira: aldaketa garaia

Lehenengo umea edukitzeak irauli egiten du bikote baten ordurarteko bizimodua. Urte mordoxka elkarrekin eman dute bi helduk bikote gisa, ezkondata edo ezkondegabe, eta orain bat-batean umetxo bat etxeratzen da. Gauza askotxo aldatzen da batean. Joxe Mari dagoeneko ez da Joxe Mari bakarrik, aita dugu orain, eta Maider ama bilakatu da. Egiteko berriak datozkie gainera. Ez denak guztiz ongi menderatzen dituztenak. Heziketa kekkak puri-purian agertzen dira: "Zergatik egiten du negar? Besotan hartu behar al dut?". Ohiturak gutxi-asko irauli egiten dira: lo egitekoak, jatekoak, lagunartekoak, lanekoak. Ardura berriak sortzen dira. Etxea bera ere egokitu behar da "maizter" txiki

politari txoko gozo bat emateko. Eta berria den horri nola hitz egin? Euskaraz? Erdaraz? Harekiko hizkuntza harremana ere berria da.

Harra tximeleta bilakatu bezala, bikotea ere familia bilakatu zaigu. Aldaketa ez da nolana hikoia.

Lanean amatasun edo aitatasun baimenak eskuratuta egoera berriari ahalik hobekien egokitzen saiatuko dira. Aldi baten ondoren lanera itzuli beharra berriro. Gurasoak etxean ez eta bestelako zaindariak behar izaten dira gero eta maizago. Aiton-amonak izaten dira lehenengo aukera. Hortxe ditugu ilobari maitasuna, zaintza eta hizkuntza atsegin handiz ematen.

Haur eskolak ere haurrez betetzen dira, gero eta gehiago. Zaindari profesionalak agertzen dira familiaren eremuan. Umea bestelako haurrak ezagutzen hasten da. Gurasoak ere beste guraso batzuk ezagutzen dituzte. Harreman berrien ugaltzea ikusgarri da.

Jolastokiaren inguruan ordu luzeak emateko garaia hasten da. Hantxe egoten dira gurasoak (bata ala biak) lan-jarduna bukatu ondoren. Ikasgela bereko haurrek elkarrekin jolasteko joera dute kalean ere. Gurasoak ez daude oso urruti eta ezinbestean elkarren ondoan orduak eta orduak eman ondoren hasten dira harreman berriak finkatzen. Urteen poderioz, gune horietako asko guraso-lagunarte bilakatzen dira. Oso maiz ikusten ditugu ikasgela bereko haurren guraso-talde finko samarrak. Zein hizkuntza hartzen dute gurasoek harreman berri horietan?

Eremu eta harreman berri hauek berri izateari aurki uzten diote. Berehala finkatzen dira oinarrizko egiturak. Hurrengo hamar urtetan edo halaxe iraun dezakete. Egoera finko samarra da aurrerantzean. Haur asko lehen hezkuntzan (6 urtetik aurrera) hasten dira eskolaz kanpoko jardueratan. Beste haurrak ezagutzeko aukera berria zabaltzen da. Hala ere, honek, gehienetan, gutxi aldatzen du ikasgelaren inguruan honezgero sortuz joan den haurren eta gurasoaren sarea.

Aldaketa nabarmenagoak sortzen dira, ordea, anai-arrebak jaiotzerakoan. Orduan bai, berriz zabaltzen da egokitze garaia. Anai-arreben arteko harremana alderdi berria da, eta eragin handikoa, familiaren bizitzan. Etorri berriaren inguruan eskola, haur eta guraso harreman berriak sortzen dira edo sor daitezke behinik behin. Sare zaharrak eta berriak nola edo hala uztartu behar dira. Kasuistika handia da. Umeen arteko adin tarte txikia bada, guraso-sare zaharra nagusituko da seguru asko. Baina bien artean tarte handia izanik (5 edo 6 urte) maiz ikusten ditugu guraso-sare paralelo eta bereziak sortzen.

Hiru aldaketa garai azpimarratu ditugu deskribapen labur honetan:

- Bikoteak lehenengo umea edukitzean
- Ume hori eskolaz kanpoko jarduetan hasterakoan
- Familia beste ume batekin handitzean

Hiru egoera hauetatik lehenengoa bakarra hartuko dugu aintzat lan honetan. Hiru arrazoi ditugu horretarako:

- 1) Gurea bezalako fenomeno korapilotsu bat ulertzeko (eta ondorioz hartan esku hartzeko) ezin gaitzeko galdu kasuistika eta alderdi txiki ugarietan, ugaritasunak muina ikusten galerazten baitigu. Aitzitik, egoera xume eta oinarrizkoetara jo beharra daukagu argitasunaren bila. Eta hiruretan lehena da, alegia bi guraso eta ume jaioberri bat, oinarrizkoena.
- 2) Aurrengo egoerak berekin dakar berrikuntzarik handiena, eta hortaz, bertan ikus daiteke fenomeno gordinenik. Lehenengo umeraren etorrerak dakarren iraulketa handiaren ondoan, gainerako aldaketa garaiak moldaketak besterik ez direla esan daiteke.
- 3) "Aurreak atzeari erakusten dio dantzan" dio esaera batek. Esan nahi du, ikuspegi sistemiko bati begiratuta, gertaturiko aurreneko aztarnek eremua gehiago mugatzen dutela gerora etorriko direnek baino. Lehenengo iraulketaren ondorioz antolamendu jakin bat eta ildo jakin bat sortzen da. Molde bezalako bat egiten du. Gerora etor daitezkeen aldaketak bere hartara bideratzeko joera bat ezartzen duen molde bat. Garrantzi kualitatibo gehiago du lehenengo aldaketa sakonak, geroko moldaketek baino.

Beraz, bi guraso eta haur jaioberri bat biltzen duen famili-egoera hartuko dugu gure sortze-lanerako abiapuntu eta oinarri. Halako egoera batean berri gertatzen dira hizkuntza harreman gehienak, bi gurasoen artekoa izan ezik, hori hizkuntza harreman zahar eta finkatua baita.

Hizkuntza harreman zaharra

- Aitaren eta amaren artekoa

Hizkuntza harreman berria

- Amaren eta umearen artekoa
- Aitaren eta umearen artekoa
- Amonaren eta umearen artekoa
- Aitonaren eta umearen artekoa
- Irakaslearen eta umearen artekoa
- Irakaslearen eta gurasoen artekoa
- Umearen eta beste umeen artekoa
- Gurasoen eta beste gurasoen artekoa

Hizkuntza harreman zahar finkatu batek ildo berean luze irauteko joera indartsua du. Ildoak ongi eginak daude. Mugak argi samarrak dira. Jokaerak behin eta berriz hartzen du bide bera, eta hori egiteagatik sakonago eta finkatuago egiten da bidea bera. Inbutu bat bezala, haren eremuan erortzen den guztia nahi ta nahi ez erdiraino erakarrita gertatzen da. Hau guztia iraultzea ez da nolana hiko jarduna. Energia pila atxiki behar zaio, neke baita erraztasunaren eta berezkotasunaren aurka aritu beharra, are gehiago irauli beharra sumatzen ez denean.

Hizkuntza harreman berri batean, ordea, ildoak eta mugak ez daude guztiz finkatuak. Harremanaren tankera eraikitzen ari da hasi-berri horretan. Eraiketa horretan inoren aldetik hizkuntzaren beharra nola edo hala sumaraziz gero, nolabait agertuko da hari hori ehuntzen ari den ehunean. Egoera irekita dagoenez, ez da hainbesteko indarra erabili behar, nola egin behar den egoera itxi finkatu bat irekitzeko.

Familia osatu berritan berez dator iraulketa eta egoeraren zabaltzea. Aitaren eta amaren harremanak lehengo lepotik jarraitzen badu ere, gainerako harreman ia guztiak berriak eta eraiki beharrekoak dira. Hartara hurbiltzen jakinez gero, hizkuntza norabidean eragiteko beta polita du eskuhartzaileak.

5. Esanak esan, eginean egin

Honaino familiaren garrantziaz jardun dugu alde edo moldez. Baliteke gauden tokian egonik hemen gaudenok horretaz zalantza gutxi izatea. Ordea, zer egin? Nola hurbildu? Zer bideak joratu? Eskuhartzeari lotutako kezkek ageri zaizkigu behin eta berriz. Hortxe ditugu ate joka. Atea zabalduko diegu.

Niri bururatutako jarduera batzuk jakitera eman nahi dizkizut, irakurle. Guziek, jakina, ez dizute berdin eragingo. Baliteke batzuk, -gogoko dituzunak-, jasotzea, eta beste batzuk, -xoxokeriak iruditzen zaizkizunak-, zokoratzea. Ez da harrigarri. "Gogoko eta ezgogoko", "bai eta ez" horiek eta horien antzeko kategoriak, bi isurialdekoak alegia, erabili ohi ditugu gauzak ebaluatzeko. Oinarrizko ebaluazio hori, ezin uka, behar-beharrezkoa dugu norabide batean ala bestean abiatuko bagara. Baina orobat,

eta hauxe azpimarratu nahi dizut, ebaluatze-epaitze horrek ito egin dezake sortze-lana, batez ere jardunaren aurren-aurrenean, goiz samar eta azkartxo erabiltzen dugunean. Bururakizun berriei epai-gabeko tarte bat eskainiko bagenie, ikus genezake nora garamatzen, berekin zer dakarten berri, ikusiko genuke haien harira guri ere beste bururakizun batzuk sortzen zaizkigula, agian ezusteko norabidea hartzen dutenak, eta ohartuko ere ideia batetik bestera jauziak eta lotura berriak egiten ditugula. Bururapen berri bati ezin dakiok soilik aldeko edo aurkako epai zurruna eskaini, damuz haren ahalmena xahutzea bailitzateke. Berrikuntza hori zer den (eta gogokoa dugun ez dugun) ikusi ez ezik nora eraman gaitzakeen ere ikusi beharko genuke. Sortze-lanean mutur batean hasita ere, baina ideiak kateatuz bezala edo goaz aurrera, batetik bestera jauzika. Eta behin sortze-bidaia egin ondoren, orduan bai zentzu handia duela epaimenaz. Kontura gaitezke orduan, hasierako bururakizuna ez-baina haren ondorioz, kateatuz bezala, etorri den azkena, hori bai egokitzen zaiola behar genuenari. Hala orduan jabetu ere, lehenengo bururakizunaren balioa ez zegoela bere baitan bakarrean, baizik eta berak sortu eta berekin ekarri duen emarian.

Hortaz, irakurle, sortze-lan bati abiapuntua ematera noakizu. Bururakizun berrien beharrean baikaude arlo honetan. Zeinek ukatuko du hori? Bai-ez jarrera zurruna baino gehiago eskatu nahi dizut beraz. Ate berriak zabaltzen ari gara. Bide berriak jorratzen ari gara. Ez dugu beti asmatuko. Har itzazu nire proposamen hauek zirikadak bezala; balia zaitez haietaz, eskuz-esku bezala, kateamenduan, zeure-zeureko bururakizunak sortzeko, erabil ezazu honetan adimena ez ezik irudimena ere, zurruntasuna ez ezik zabaltasuna ere, epaimena ez ezik sormena ere. Azken emaitza hobeago izango da hemen agertu duguna baino.

6. Eskuhartzeko ildo nagusiak

Gehiago izan daitezke, baina hiru zutabe aipatuko ditut famili eremuan eragin ahal izateko. Azkar aipatuta: hitza, ekintza eta laguntza.

Hitza

Hitzaren, irudiaren eta ikurren erabilerak esanahi handiko eremu sinbolikoa jasotzen du jendearen buru-bihotzetan. "Bai-Ez", gure oinarrizko bitasuna alderdi sinbolikoak erruz elikatzen du. Gogoan ditugun ikuspegi, diskurtso, balore, uste eta antzerako horiek guzietan aldeko edo aurkako aldarte batera eraman ohi gaituzte, era berean, norabide batera edo bestera astintzen gaituzte.

Agian diskurtso oso, zabal, iraunkor eta adostua eraiki beharrean gaude eta gizarteari helarazi. Komunikazio-estrategia oso baten adostasunaz ari naiz, ez aldi bateko kanpainatxoaz. Estrategia bat, adierazpide lerro nagusi batzuk adostua dituen, lurraldearen toki asko eta askotan entzuten dena, eta urte askotan etengabe erabiltzen dena.

Maitasuna baita maitasunezko eremu batean euskara erabiltzera eramaten gaituena, zirrara horretan oinarrizko nuke nik komunikazio-estrategia. Hori da lehenengo zutabea. Euskaraz egitea, bigarren zutabea. Hortaz, maitasuna eta euskaraz egitea bat eginik.

Lelo batzuk proposatuko nituzke, hori guztia biltzeko:

- "Maitasun-Saregile gara: Euskalgile"
- "Maitasun-Ehule gara: Euskaragile"
- "Maitasun-Zabaltzaile: Euskalgile"
- "Euskara-Saregile: Maitagile"

Honelako mezu batek hamaika aldiz erabili, hamaika lagunek adierazi, hamaika tokitan entzun beharko litzateke gizartearen multzo handien buru-bihotzetan sartuko bada. Euri jasa ez-baina xirimiri antza du gehienik.

Mezu zehatzagoak ere zabal daitezke, baina beti ere lelo nagusiak agertuaz eta beren itzalpean bezala. Hona hemen batzuk:

“Maite zaitut, euskaraz egiten dizut”
“Euskaraz maiteago zaitut, neuago naizelako”
“Maite duzunari goxoki euskaraz ari”
“Ulertzen duenari maiteki euskaraz ari”

Irudiek indar gehiago ematen diote hitzari. Herriko guraso euskaldunen argazkiak bistarazi daitezke aldaera ugarian: 1) guraso multzo handitan, 2) familia osoa banaka agertuta, 3) ama eta umea, edota aita eta umea, harreman zehatzan agertuta. Argazki multzo hauen azpian honako leloak eman daitezke:

“Euskaragileak: maitasun-ekintzak”
“Euskalgilea: maitasun-opariak”
“Euskaraz: maite dudana ematen dizut”
“Maitasun-eremua: euskalgileak”

Ekintza

Nik hemen, ekintza kontzeptuari oso adiera zehatza ematen diot. Hain zuzen, euskara erabiltzea ezinbesteko egiten duen inguru baten eraiketari esaten diot. Inguru horren barruan dagoen lagun orok euskarara egokitu beharra dauka halaberrez. Inguruaren indarra erabili nahi dugu banakoen hizkuntza jokaera mugatzeko. Testuinguru orokorrak lagundu behar du ekintza maitasun-jardura bezala uler dadin, maitasun-sarearen zabaltze bezala suma dadin. Ez du asmo inor nahigabetzea, maitasun-opariak ematea baizik.

Balitzo ekintza batzuk bururatzen zaizkit. Horiek non kokatu eta norekin egin zehatzago landuko dugu hurrengo ataletan, harreman motak banaka aztertuko dugunean. Orain aurkezpen orokorra besterik ez.

“Terrazako solasaldiak”

Gaztelaniaz entzunik dugu esaera hau: “Mahoma mendira ez doanez, betor mendia harengana”. Zail da gurasoak guraso diren bitartean ikastaro, hitzaldi eta antzekoetara eramatea. Zainketan ari dira haurren inguruan. Haiengandik gertu egon behar dute. Jolastokiari iltzatuta bezala daude orduak eta orduak, egunak joan eta egunak etorri. Ordu horietako asko eta asko asper samarrik ematen dituzte. Gurasoek ia gai bakarra erabiltzen dute, alegia umeak gora eta umeak behera. Gogaigarri samarra azkenean. Pizgarriaren beharra ez da urri inguru horretan. Eskaini al diezaieguke guk guraso gaixo haiei pizgarririk? Hala balitz erruz eskertuko ligukete, beharra eduki nabarmen baidaukate.

ZIRI¹: Zergatik ez ditugu hitzaldiak eta ikastaroak kalera eramaten, gurasoak dauden tokietara hain zuzen ere?

Terrazako solasaldiak, esaterako. Gai batean eskarmentua duen norbait elkar daiteke guraso multzo batekin tabernaren bateko terrazan (jolastokian bertan dagoena noski) solasaldi arinean jarduteko. Formatoak arina behar du ezinbestean. Denbora laburra: ordubete edo. Intereferentziak naturaltasunez onartzen dituenak: haurrak batera eta bestera ibiltzea baitaukate. Gai xumeak. Gauza pare bat baino lantzen ez duena. Solasera errez moldatzen diren gauzak.

Ulertzekoa da solasgai ugari umearen ingurukoak izatea. Baina, mihi-bakarreko ezkilak duen arriskuari izkin eginez, bestelako gai zabalek ere tokia izan behar lukete hemen. Balizko zerrenda bat doakizue:

- Haurrak zigortzeaz besteko bideak
- Hurrei entzuteko modu batzuk
- Bihotzaldien adierazpena
- Ipuiak kontatzeko amarru batzuk
- Mugak noiz nola jarri
- Nola prestatu barazkiak haurrek hobeto "jateko"
- Osasun aholkuak
- Goxokiak eta elikadura
- Munduko kulturak
- Bidai kronikak
- Moda ala morrontza?
- Ama zelulak: zer da hori?
- Zientzia eta etika

Norbaitek antolatu beharko luke hau guziaz: Euskara Zerbitzuek, Guraso Elkarteek, Ikastolek... Gai zerrendak ezagutzera eman beharko liriateke. Guraso taldeek ere gai hau edo bestea eska lezakete. "Servicio a la carta". Solas-buruak ere bilatu beharko liriateke. Poltsa bat egin liteke. Herriko gurasoen artean haiek bilatzea izango litzateke egokiena. Diru pixka bat eman dakieke solasaldi bakoitzarengatik, nolabaiteko pizgarri gisa.

Udaberri bukaeran, udan zehar eta udazkena hasieran, hots, eguraldiak kalean egoteko bultzatzen gaituenean egin daitezke gozoenik terrazako solasaldiak. Neguan ez. Beste zerbaitek behar dugu garai horretarako.

Hizkuntzaren ikuspegitik, terrazako solasaldiek akuilu bezala eragiten dute guraso-taldeetan euskara aintzat hartua izan dadin. Batez ere, guraso talde horiek egin berritan. Orduan ari dira harreman eremua antolatzen. Egoera zabalik dago. Terrazako solasaldiek ekar lezakete berekin pizgarri polita. Guraso euskaradunek adorea har lezakete eremu horretan euskaraz lasai arraio egiteko. Euskara trakesdun² gurasoek gogo onez onar dezakete inguru horretan euskarak tokia eduki, eduki behar duela.

¹ Edward de Bonoren PO hitzari neronek emaniko euskal ordaina. ZIRI esan, eta irakurleari ohartarazi nahi diogu ondoren datorrena ohiz kanpokoa dela, zirrikada moduko bat, bide berriak arakatzen ari den globo-sonda gisako bat. Era berean, jarrera zabal, jolastari, arakatzaille, eta ikertzaile eskatzen diogu irakurleari, logika zurruna alditxo batez bazterrean utzirik.

² "Euskara trakesduna" oso adiera zehatzean erabiltzen dugu hemen eta testu osoan zehar. Hori bera esan genezake "euskalduna" kontzeptuaz ere. Hala, "euskalduna" hitzarekin "euskaraz ongi edo oso ongi mintzaren diren lagunak" adierazi nahi ditugu. Era berean, "euskara trakesduna" kontzeptuak gure erabileran adierazten du "euskaraz mintzateko nahiko ongi edo moldatzen den laguna".

“Guraso txokoa”

Hona hemen negurako zerbait. Latza da negu gorrian edo garai euritsu eta hotzetan kalean egotea. Hala ere, kalerako joera sumatzen dugu gehienetan euskaldunok. Hainbat herritan badira ludotekak, baina...

ZIRI: eta gurasoak balira begirale?

Hezkuntzaren ikuspegitik ez da oso joera txukuna gurasoek, gero eta gehiago, hezkuntza-erantzukizuna besteri zamatzea, delako hori irakasle izan edo begirale izan izan. Hizkuntzaren ikuspegitik ere ez goaz oso aurrera baldin eta gurasoek, euskaraz egitearen ardura bere bizkarretik kendu, eta irakasleri edo begiraleri bizkarreratuz bezala jokutzen badute. Hezkuntza-hizkuntzaren alorretik gero eta gordinagoa dugu gurasoak zutitzeko eta abiatzeko beharra. Hau ez da jakina, euskara teknikarien egiteko hutsa, ezta urrunik ere. Gurasoen heziketa mugimendu euskaldun sendo baten beharra gero eta nabariago da. Norabide horretan, ordea, harritxoren bat jar lezake euskara teknikariak. Zergatik ez egitura bat sortu non gurasoak beraiek izan daitezkeen begirale?

Ludoteka bat antolatzeko udalak jartzen dituen bitarteko berak jar ditzake gurasoen esku. Gurasoak txandaka ari daitezke zeregin horretan, eta diru-saria ere jaso horren truke. Demagun txanda horiek hilabeteko direla. Esan gabe doa, noski, guraso-begirale horiek euskaraz burutu beharko luketela jarduna.

Laguntza

“Aisa Euskalgile”

Gurean azkenaldion guztiz ezagun egin zaigun TELP jardunaren anai txikia duzue “Aisa Euskalgile” saioa. Lau ordutan ez bestean ematen den saio laburra. Lau ordu horiek ez dira ezinbestean saio bakarrean eman behar, egun banatan ere egin daitezke.

Euskaldunari eskainitakoa da eta oso helburu zehatza du: nola sentitu ahalik eta erosoan euskaraz egiten dionean nahiz euskara trakesdunari nahiz mintzatu ez arren euskara ulertzen duenari.

Egoera ere zehatza da: guraso taldeak osatu berrian edo osatzen ari direlarik, beharbada euskalduna, euskaraz egitean, ez da eroso sentitzen euskara traketsa dutenekin ari denean, ez eta euskara ulertu arren erdaraz hitz egiten dutenekin ere.

Saioak honako bi zutabe nagusi hauek izan litzake:

- Hizkuntza gaitasun estrategikoa landu, era batez ulertu ez dena beste era ulergarriago batez esateko.
- Amarru batzuk ezagutu, nekea arintzeko eta atsedean hartzeko.

“Ulertzea helburu”

Hainbat hizkuntza egoeratan aski da bat bakarra aurrean egotea, euskara ulertzen ez duena, euskarazko jarduna zeharo eteteko. Harekiko jarduna ezin euskaraz burutu, hori begi-bistakoa da. Baina, hori gutxi ez eta are gehiago zabaltzen da haren eragina: bera han egotea aintzat hartuta gainerako kideekiko harremanak ere erdararako bidea hartu ohi du. Izango al da euskaldunoi egosten zaigun talde-grinaren ondorio, hots, “denak ala inor ez”? Batek daki.

Kontua da euskara ulertzen ez duenak egitez ezinezko egiten duela euskarazko jarduna. Egoera zeharo giltzatuta gertatzen da. Ba al dago ordea modu errazik hau gainditzeko? Errazik ez, baina oinarritzkoa bai, eta da: ulertzen ez duenak ulertzeko gaitasuna eskuratzea. Honek ez du inolaz ere ziurtatzen euskarazko jardunak aurrera egingo duenik, baina orain aldaketa ikaragarria gertatu da, orain behinik-behin badago aukera, badago aurrera egiteko bidea. Egoera ez dago gehiago giltzatuta, zabaldu egin da atea, aurrera joatea badago. Gogoak eta indarrak aurrerago edo gertuxeago eramango gaitu, baina bidea zabalik da. Euskarazko emariak ez du jada ibilbidea mozten dion hesirik.

Laguntza-saio hau eskaintzen zaie horretaz ohartu diren euskalgabeei, euskaldunen zapuztailerik gehiago izan nahi ez dutenei. Hau ere baita maitasun-ekintza.

Ehun ordutan arituta euskara ulertzeko oinarritzko gaitasuna eskuratzea dugu asmo. Metodologia ez da eskola-tankerakoa, ez eta ariketen bidezkoa ere izango. Aitzitik, berezko eran egingo da, hots, benetako elkarriketaren bidez, hizkera erraza eta ulergarria erabiliz.

Hasi berritan aditu baten esku egon daiteke saioa, baina erdialdetik aurrera-edo guraso horren kideek hartuko dute lekukoa, poliki-poliki, mintza-lagun edo solaskide moduko giza-sareen bidez. Baten senarrak, emazteak, edo guraso taldekideak jardun dezake orduan berekin hizkuntza-gizarteratzaile gisa. Adituak, orduan, gertabide edo prozesu honen begirale jokatu luke, aurrerabideak gainbehera egin ez dezan.

7. Aitaren eta amaren arteko hizkuntza harremana

Neurri batzuk proposatu ditugu. Bururakizun batzuk plazaratu ditugu. Ez dira guziak ordea ongi egokitzen gure egoerari, hots, bi guraso eta ume jaioberri baten eremura mugatu dugun egoerari. Horregatik, harremanez harreman jardungo dugu bakoitzaren xehetasunak adierazteko.

Amak eta aitak elkarrekiko duten hizkuntza harremanaz hasiko gara. Umea etortzeak harreman berri ugari sortarazten du, baina ez da ordea hala gertatzen aitaren eta amaren arteko hizkuntza harremanarekin. Lehengo lepotik burua. Harreman hori zaharra da. Bikotea osatu zenetik (duela bost, hamar, hamabost urte) honuntza datorren harremana izanik, hizkuntzari dagokionez, zeharo finkatuta dago. Harreman honen hizkuntza norabideak gaztaroan lurreratu zituen sustraiak. Orduan osatu zen gaurdaino iritsi den eta sakon finkatuta dagoen hizkuntza jokaera. Erdarazko jokaera gaztaroan finkatu duen bikoteak iraul al dezake hizkuntza harremana umea euren bizitzara agertu zaien aldi berezi horretan? Ezinezkorik ez dago, baina nekez ikusten dugu hori.

Non eta hizkuntza harremanaren iraulketak energia-emate gutxi behar duen eta alditxo laburrean eman daitekeen, (esaterako, bi kideak euskaraz egiteko gaitasun txukun-txukuna izan arren, gaztaroan utzikeriz-edo erdaraz ari izan direnetan³), zail da. Adinean aurrerago joan eta zailago da halako iraulketari nahita eustea. Adina beragatik, sasoi eta indar kontuak direla medio. Baina era berean, gizarte baldintzagatik ere, hots, arduren metatzea, han eta hemengo loturak, denboraren urritzea, edo ohituren sakontasuna, hori guztia handitu egiten baita adinarekin, gero eta zurrunago

³ “Berreskuratzea” esaten dio honi Pablo Suberbiolak HPSrako egin duen “Bikoteen hizkuntza ohituren aldaketa” izeneko ikerketa berrian.

bilakatzen gara, gero eta aldaketarako zalutasun eta prestutasun gutxiago dugu. Eskuarki erdaraz diharduten bikoteek, batek ala biek, erdoilduta, kamustuta dute euskara. Energia handia dute mahai gainean jarri behar iraulketari lotzeko. Gehienetan ez dago hori eskura, are gutxiago umearen etortzeak berekin dakarren erabateko aldaketaren zurrunbiloaren erdian murgildurik daudenean.

Lan honetan, ez dugu ezer ekarri harreman mota honentzat. Nago bikotearen hizkuntza harremanean eragiteko gaztarora begira jarri behar dugula. Orduan sortzen baitira bikoteak, orduan osatzen baitira hizkuntza harreman berriak. Han lortzen ez dena ez da familia giroan lortuko. Beranduegi da. Bikotearen hizkuntza harremana ez dagokio berez familiari, lehendik baitator, lehendik bideratu behar baitzen euskara aldera. Etxeko lanak, nolabait esan, lehendik egin behar dira. Bikote harremana euskaraz finkatu dutenak halaxe jarraituko dute familia izaterakoan ere. Harreman berori erdaraz finkatu dutenak hartan iraungo dute familian ere. Hau guztia joera nagusi bezala diogu. Salbuespenak egon badaude. Argiena, esanik dugunez, berreskuratze tipologietan.

Hortaz, guk, bikotearen hizkuntza harremanari buruzko kezka, familiaren eremutik atera eta gaztaroaren eremura eramango genuke. Gazte lagunarte eta bikoteei begirako estrategia osoa ere diseinatu beharrean gara.

8. Amaren eta umearen arteko hizkuntza harremana, aitaren eta umearen arteko hizkuntza harremana

Aita eta ama, biak banaka hartuta, jai berri den umearekiko harremana eraiki behar dute. Ikuskizun dago, beraz, zein hizkuntza jokaera hautatuko duten. Gauza batzuk suma ditzakegu, beste batzuk ez.

Zer jakin-uste dugu? Bat: euskaldunak, hots, euskaraz egiteko gaitasun ona edo oso ona duenak, beste euskaldun batekin aurrez aurre elkartzerakoan euskaraz egiteko joera ohi duela. Joera hori neurtzekotan, guk Lasarte-Orian aipatu ikerketan ikusitakoaren arabera, 10etik 8koa izan daiteke. Badakigu, bestalde, joera hori ez dela bat-bera Hegoaldean edota Iparraldean. Ez dakigu, orobat, Hegoaldeko lurralde guzietan joera bera gertatzen den. Joera hori mugatzat hartuko bagenu, esango genuke euskaldun gehienak aita edo ama bilakatzean euskarari helduko diotela jai berritako umearekin jarduterakoan. Errazagoa baita, besteak beste, oraino hizketan ez dakien haur bati euskaraz egitea heldu bati euskaraz egitea baino.

Bi: Badakigu, bestalde, etxeak umearengan uzten duen aurreneko bihotzezko hizkuntza aztarnak berealdiko indarra duela bere gizarte hizkuntza jokaera euskararen aldera makurtzeko, dakigun arte bederen, bai haurtzaroan eta bai gaztaroan. Joera hori antzekoa izan daiteke bihotzezko lehen aztarna goiztiar hori bi lagunek emana izan (bi guraso euskaldunak izanik) edo bakar batek emana izan (baldin bakar hori ama bada). Aita bakarra denean etxean umeari euskaraz egiten diona, txikixeago dirudi bihotzezko aztarnaren sakontasuna eta eragina. Ikus Lasarte-Oriako ikerketan eskuratu genituen datuak:

	Lagin osoa	Gazteak kalean euskara erabili	Gazteak kalean erdara erabili	Guztira
Guraso euskaldunak	17.4	72.4	27.6	100
Ama besterik ez euskalduna	9.0	78.6	21.4	100
Aita besterik ez euskalduna	7.2	25.0	75.0	100
Guraso erdaldunak	65.3	12.8	87.2	100
Bestelakoak	1.1			

Guztira	100		
---------	-----	--	--

Amak aitak baino umearekiko bihotzezko harreman biziagoa duela begi-bistako gizarte-gertaera dugu. Gizon-emakume kutsua bazter dezakegu, hala ere, eta esan hipotesi gisa, haur batek aski izan dezakeela lagun bakar baten bihotzezko hizkuntzaren eragina bere geroko hizkuntza jokaeraren joera nagusia ezartzeko.

Hortaz, beti ere hipotesi gisa eta ditugun datuen argitan, esan dezakegu, aitaren eta amaren arteko hizkuntza jokaera erdarari itsasita egon arren, haietako bakar batek, haurarekin bihotzezko harreman bizi eta iraunkorra duenak izan ere, harekin euskaraz egin ohi badu, eman egingo diola haurrari euskarazko bihotzezko elikagaia aski, eta horrek euskaraz egiteko joera emango diola gerora ere.

Hortaz, ez dirudi hain urri egoera hori, non kide bakar batek, bihotzezko harremanik biziena duenak, egiten dion euskaraz umeari. Hemendik etor daitezke familiaren eremura irabazirik nabarmenenak. Antzeman dezakegu, orduan, kide euskaldunak joera izango duela haurrekin euskaraz egiteko, kide bakarra izanda ere, eta haurrerantzako onura argiak etorriko direla.

Hiru: Badakigu euskara trakesdunak erdarara isurtzeko joera nabaria duela kideekin diharduenean. Joera hori 10tik 8koa da, guk dakigunaren arabera. Eskolak, D ereduaren zabaltzearen bidez, ugaritu egin du tipologia hau. Erdal elebakartasunari kendutako baina euskal eremura bete-betean sartu gabeko multzo zabala. Nola jokatuko dute harreman berri asimetriko batean, hots, beren umearekin jardutean? Ez dakigu. Hiru balizko egoera suma ditzakegu, kopuruetan mugatzen ez dakigun arren.

1. egoera: euskarekiko maitasun berezirik ez duten horiek erdaraz egingo dute zuzen-zuzenean umearekin.
2. egoera: euskarekiko nolabaiteko maitasuna dutenek euskaraz egingo diote umeari lehenengo urteetan. Lehenengo urte horietan ez du aitak edo amak haurraren komunikazio mailari eusteko zailtasun nabaririk izango, nahiz eta bere hizkuntza gaitasuna bete-beteko ez izan. Hirugarren edo laugarren urtetik aurrera ordea, zailtasunak ageri daitezke, eta oso litekeena da helduak erdarara jauzi egitea erosotasunaren eta gaitasunaren premia larria ageri zaionean.
3. egoera: aurreko egoera bera izango genuke, baina aldaera handi batekin. Ama edo aita hori guraso giro euskaldunean murgildu denez bere hizkuntza gaitasuna zaildu egin du heldu-heldu arteko harremanean. Horren ondorioz, haurraren hizkuntza gaitasunak aurrera egin ahala aitak edo amak zailtasunik gabe eutsi diezaioke haurraren aurrerako jauzi horri.

Ustez uste gabiltza eta ezin ezer segururik esan. Ez dakigu, esaterako, non dagoen gutxieneko muga "bihotzezko eragina" gertatzeko. 2. egoera aski izan daiteke? 3. egoera dugu ezinbesteko?

Guk, oraingoz, senak aginduta, 3. egoera hartuko genuke oinarri bezala. "Euskarazko bihotzezko eragina" hark ziurtatzen duela esango genuke. Hortxe, gure aburuz, gutxieneko maila.

Hirugarren egoera honetan ageri diren gurasoek behar dute lehenik maitasuna, euskararekiko grina. Dagokion atalan esanik dugun bezala, komunikazio estrategia zabal, luze eta etengabe batek emaitzak ekar ditzake honetan. Baina, bigarrenik, kaleko giroan, guraso-sareetan, nahi ta nahi ez euskaraz ari beharra dute hizkuntza gaitasunean aurrera egingo badute. Hemen, "terrazako solasaldiak" bultzagarri egokiak izan daitezke euskara aintzat hartua izan dadin halako giroetan. Baina, ororen gainetik, buru dugu euskaldunen jokabide euskalgilea. Eragin hau etengabea baita, egun bat eta bestea ere bai. "Aisa Euskalgilea" lagungarri suerta daiteke hemen.

9. Gurasoen arteko hizkuntza harremana: guraso sareak

Garrantzi handia dute harreman hauek hainbat arrazoiengatik:

- Berriak direnez, hizkuntza irizpide berriak ezartzeko aukera zabalik dagoelako.
- Gurasoek ingurune horretan ordu mordo ematen dutelako
- Gizarte-sare berriak osatzen direlako, sei, zazpi, hamar urte iraun dezaketanak.
- Guraso-talde horietako batzuk heldu-lagunarte askoren haziak direlako, eta hortaz, haien eragina umeen zaintzaren garaitik haruntzago joaten baita askotan.

Hauen sorreran hainbat joera sumatzen ditugu:

- Haurren ikasgelaren inguruan sortzen dira. Ikasgela baten inguruan bizpahiru azpitaldetxo sor daitezke.
- Lehenengo umearen eraginez sorturiko guraso-taldeek irauten dute gehienbat. Bigarren edo hirugarren umearen ikasgelaren inguruan zailago da guraso-talderik sortzea, baldin eta lehenengo umearekiko adin tartea txikia bada (bi edo hiru urteko aldea). Azkenekotik lehengora adin tartea handia bada (bost urte edo gehiago) orduan bai aukera egon daiteke bestelako guraso-talde batean murgiltzea ume horren aita edota ama.

Hizkuntzak zerikusi dauka talde horien sorreran. Talde batzuk berehala makurtzen dira erdararen aldera, eta nola ez bada, atertu gabe eta arazorik gabe irauten dute horretan. Badira bestalde, euskararen alderako joera erakusten duten beste lagun batzuk. Giro hauek, aurrekoak ez bezala, ez dira ez hain sendo eta ez hain iraunkor. Hizkuntza egoera nahasia da sarritan. Hiru motatako jendea antzeman daiteke: 1) euskaldunak, 2) euskara trakesdunak, eta 3) ulertu ere egiten ez dutenak.

Zailtasunak agerian daude:

Euskaldun askok nahiago du erdaraz aritzea euskaraz jarduteko zailtasunak dituen lagunarekin, hots, euskara trakesdunarekin.

Euskara trakesdun askok nahiago du erdaraz egitea, errazago ateratzen baitzaio. Batzuetan zuzenean egingo du, beste batzuetan euskaraz saiatu ondoren erdarara jauziko da.

Ulertu ere egiten ez duenak, jakina, erdaraz.

Hiruretako bakoitzak badu bere eginbeharra zailtasunak gainditzeko, eta euskal eremu sendoa eraikitzeko: Euskaldunak "Aisa Euskalgilea". Euskara trakesdunak "Terrazako Solasaldiak". Eta ulertzen ez duenak "Ulertzea Helburu".

Guraso hauengana iristeko bide zuzena badago: ikasgela bilerak. Ikastetxeen eta ikastolen laguntzaren bidez bilerara dei daitezke gurasoak gelara. Behin bakarrean deitzea aski izan daiteke, alegia, umeak lehen aldiz eskolatzen diren aldi hartan. Bilera laburrean, eskura dituzten tresnak ezagutaraz daitezke. Gero merienda batera gonbidatuak badira hobe, guzia bilera eta seriotasuna izan ez dadin.

Nork hartu beharko luke ardura bilera hauetan (eta baita egitasmo osoaren kudeaketan ere)? Udalak, euskara zerbitzuaren bidez? Ikastolak edo ikastetxeak? Guraso elkarteak? Euskara elkarteak? Ez da hau munta txikiko eztabaida, ez horixe. Nik baditut nire iritzia, baina ez ditut hemen landuko.

10. Aiton-amonaren eta umearen arteko hizkuntza harremana

Ezin uka, egungo gizartean egiteko handia hartzen ari direla aitona-amonak umeen zainketan. Haien umeari ematen dioten bihotzezko elikagaia ez da gutxietekoa. Maitasunarekin batera hizkuntza ere ematen diote.

Hemen, aita-ama kasuan bezala, hizkuntzari dagokionez, esan daiteke "bakailu guzia banatuta" badagoela. Hots, ordurarte finkatutako hizkuntza jokaeraz berberaz jokatu dute ume berriarekin ere. Ez dago hizkuntza iraultetarako itxaropen handirik.

Iraultetarako, agian ez, baina alderdi sinbolikoan bai laguntza handia eman dezakete. Ugari izango dira oraino belaunaldi horretan euskara batera ez dakitenak. Zergatik ez ikasi orain oinarrizko adierazpide batzuk? Zergatik ez busti bere erdarazko jardun nagusia han-hemenka euskarazko uhartetxoekin? Gazte batzuek "euskañola" egiten badute, zergatik ez gure agure batzuek "espaineuskera" egin?

Denbora pila dute orain. Lehen egiterik izan ez zutena orain egiteko aukera dute. Ez dira gutxi izango euskararekiko maitasuna, euskararen aldeko joera landu gabe utzitakoak. Zergatik ez orain berreskuratu galtutako denbora? Haietako askok, gainera, beharra dute baliogarri sentitzeko. Ez al da baliogarri izatea haurren euskarazko bihotzezko heziketan jardutea?

Ez dakit euskaltegiek-edo inoiz gogo eman duten "hirugarren adineko jendearentzako" saioak egitea, unibertsitatean "eskarmetudunen gelak" arrakasta handiz antolatu diren bezala, baina zalantzarik gabe, gogoan hartzekoa litzateke.

Euskarari dagokionez, ikastaro bereziak antola litezke. Xume eta zehatz izan behar lukete helburuen aldetik inondik ere. Ikastaro funtzionalak deritzanak alegia: 50 bat ordutan esaldi erraz batzuk ikasi, eta oinarrizko komunikazio funtzio batzuk bete. Kitto.

11. Irakaslearen eta gurasoen arteko hizkuntza harremana

Eskolarari dagokion esparrua da berau. Zer esan eta zer egin badago honetan ere. Baina nik bederen orain ez naiz ariko horko bazterrak nahasten. Bego.

Gaurkoz aski esan dugu. Gerokoa geroko utzi.



Helbidea · 20000 Herria (Gipuzkoa)
T_ (+34) 943 000 000 · F_ (+34) 943 000 000
mail@webgunea.com · www.webgunea.com

Udaltop lan-topaketa batzuk izan nahi dute. Helburu hori lortzen laguntzeko, ponentziak eskura jarri dira topaketak egin aurretik, nahikoa denbora izan dezan teknikari bakoitzak irakurtzeko, lantzeko eta hizlariari egingo lizkiokeen galderak prestatzeko. Jardunaldietan bertan, jadanik irakurriak egongo diren hitzaldiei adina tarte eman nahi zaie elkarrizketarako eta hausnarketarako tarteei.

Idatzi hemen zure galdera (ez ahaztu web gunetik bideratu behar duzula).

Galdera:

Azalpena: